

MAIATZAREN LEHEN IGANDEKO NEKAZARITZA AZOKA DELA-ETA INSTALATUKO DIREN TXOSNEN INSTALAZIOA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

Oinarri arautzaile hauek txosnaren instalazioa eta funtzionamendua arautzea du xede, maiatzaren lehen igandeko Nekazaritza Azoka dela-eta. Besteak beste, ekoizpen propioko txerriak edo sagardo edo txakoli edo ekoizpen propioko irinekin egindako taloa salduko dutenek izango dute baimena eskatzeko eskubidea.

Ezaugarri orokorrak

1. Txosnak Berangoko Udalak alde zehaztutako lekuan soilik jarri ahal izango da.
2. Instalazio hau pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenik ez eragiteko beharrezko baldintza teknikoak bete behar dituzte, kasu bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera, batez ere, sendotasun, egituren funtzionamendu, suteen kontrako prebentzio eta babes neurriei dagokienez, baita osasun eta higiegi egoerari dagokionez ere.
3. Instalazio-eskaera guztien artean, txosna bi instalatzeko baimena emango da, gehienez ere.

Eskaerak eta baimena.

1. Interesatuak apirilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak eta Alkatetzak ebatziko ditu.
2. Interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:
 - Eskatzailearen NANaren fotokopia.
 - Nekazaritzako ustiategiak Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan duen inskripzio-zenbakia.
 - Indarrean dagoen osasun erregistroa.
 - Jarduera ekonomikoen zergaren alta hartuta egotea eta zerga ordainduta izatea.
 - Gizarte Segurantzaren araubidean alta hartuta egotea eta kuota ordainduta izatea.
 - Manipulatzailer txartela edo osasun-prestakuntzaren ziurtagiria.
 - Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta indarrean dagoen ordainagiria.
 - Produktuen jatorria identifikatzea eta bermatzea.
3. Betekizunak betetzen dituzten eskaeren artean, eta Azokan txosna bi bakarrik instalatzeko xedez, zozketa bat egingo da eskatzaileen artean.
4. Jarduera hasi aurretik, erantzukizun zibileko aseguru izan beharko dute, ikuskizun publikoen eta jolas jardueri buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritako gutxieneko kopurua baino handiagoa, baimendutako jarduera garatzean hirugarrenei sorlekizkiekeen kalte-galerak ordaintzeko.

Higiegi eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak

Instalazioak jartzeko eta erabiltzeko orduan, merkaturatutako produktuen eta instalazioen gaineko araudi espezifikoak ezartzen dituen higiene eta osasun baldintzak beteko dira une oro, baita ematen diren baimenetan ezar litezkeen baldintza partikularrak ere.

Gutxienez 21^a-113B-ko eraginkortasuna duen su-itxalgailu bat instalatu beharko da, egunean berrikusia eta hura erabiltzeko arazorik egon gabe.

Tasa

Txosna instalatzeko jabego publikoko okupazioari dagokion tasa ordaindu beharko da.
Txosna nekazaritza azokan: 20 €/m².